

ASTEAZKENEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2013ko azaroaren 20a. 18:30.

ASTEAZKENA (2013/11/20)

Ondorengo orduetan zerua oso hodeitsu egongo da eta zaparrada txiki-ertainak botako ditu, bereziki kantauri isurialdean. Elur-maila 800 m-ra kokatuko da, 900-1000 m-ra igoz azken orduetan. Mendebal/ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogor batzuekin kostaldean eta mendi inguruetan.

Tenperaturak (°C)	
	<i>Maximoa</i>
Donostia	9
Bilbao	11
Gasteiz	6
Arrasate	7

OSTEGUNA (2013/11/21)

Zerua oso hodeitsu egongo da. Prezipitazio txiki-ertaina eta ugaria egingo du, kantauri isurialdean iraunkorra eta oso ugaria; zenbait lekutan prezipitazio handia egiteko probabilitatea txikia da, goizean batez ere. Egunaren bigarren partean trumoi-ekaitza eta txingorra izateko probabilitatea handia da. Egunaren lehenengo partean elur-kota 800-1000 metro inguruan egongo da, bigarrenean 800-900 metrora, azken orduetan ekaitz-eremuetan noizbehinka 700 metrora. Mendebal-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin eta oso gogorrekin kostaldean eta mendi inguruetan; goizean ipar-mendebaldetik finkatuko da. Tenperaturan aldaketarik ez edo gutxi igoko da. Barnealdean izotz txikia egiteko probabilitatea handia da, mendi inguruetan batez ere.

Tenperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	5	9
Bilbao	6	10
Gasteiz	1	5
Arrasate	2	7

OSTIRALA (2013/11/22)

Zerua oso hodeitsu egongo da. Prezipitazio txiki-ertaina eta ugaria egingo du, egunaren lehenengo partean eta kantauri isurialdean batez ere. Trumoi-ekaitza eta txingorra izateko probabilitatea handia da. Elur-kota 600 metro inguruan egongo da, egunaren lehenengo partean ekaitz-eremuetan noizbehinka 500 metrora. Ipar-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin kostaldean eta mendi inguruetan. Tenperaturan aldaketarik ez edo gutxi jaitsiko da. Barnealdean izotz txikia egingo du, mendi inguruetan batez ere.

LARUNBATA (2013/11/23)

Zerua oso hodeitsu egongo da. Prezipitazio txiki-ertaina eta ugaria egingo du, kantauri isurialdean eta egunaren lehenengo partean batez ere. Egunaren lehenengo partean trumoi-ekaitza eta txingorra izateko probabilitatea handia da. Elur-kota 700-900 metro inguruan egongo da. Ipar-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin kostaldean eta mendi inguruetan. Tenperaturan, aldaketarik ez. Barnealdean izotz txikia egiteko probabilitatea handia da, mendi inguruetan batez ere.